

Bilbon, 2000.eko ekainaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu,
J. M. Satrustegi eta
Andres Urrutia (arratsaldean)
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzaile
eta
R. Badiola, argitalpen eragilea (azken orduan).

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia, 2000.eko ekainaren 23an, hileroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko hamarrek eta laurdenetan eman zaio hasiera. Bildutako eniznak ezkerreko zutabea jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute H. Knörrek, B. Oihartzabalek, J. San Martinek eta Ibon Sarasolak.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak bileraren hastapenean dolumina azaldu du bere eta Euskaltzaindiaren izenean H. Knorrek anaia galdu berri baitu.

Aurreko batzar-agiria onartzea.

Funtsezko oharrik gabe ontzat eman da agiria.

Eskuartekoak

Idazkariordeak eskuarteko zenbaiten berri eman die euskaltzainei:

1. *XV Biltzarreko* zirkularren berri, lehenbizi. Delako zirkular hori euskaltzain guztiei banatu zaie eta Euskaltzainditik kanpo ere zabaltzen hasia dela esan du.

2. *Argitalpenen banaketa arduradun* gisa Jon Artza kontratatu berri dela adierazi du. Lehenbizi barne-deialdi bat egin zen eta inor ez zen aurkeztu. Gero, berriazko azterketa gairiditu ondoren, Artza jauna kontratatzeko proposamena egin zitzaion zuzendaritzari. Pertsona hau orain arte behin-behineko kontratu batekin ari zen lan horretan.

3. Orain arte *Nafarroako Hizkuntz Politikaren* arduraria izan duen Perez de Viñaspre jaunaren gutunaren berri ere eman zaie euskaltzainei. Arratsaldeko bilkuran hitz egingo da luzeago kontu horretaz.

Hizkuntz arauak.

Gramatika araua: *“Izen sintagmen arteko juntadura”*

Miren Azkaratek egin du arauaren testu berriaren aurkezpena. Ondoren eztabaida piztu da eta aurkeztutako testuari zenbait aldaketa egitea onartu da. “Kasu markadun sintagmak” barik “hondarkirik gabeko izenak” edo izen taldeak ere junta daitezkeelako puntuan trabatu da eztabaida eta zenbait zuzenketa egin beharra ikusi da. Bereziki, posposizioen ezkerretara ager daitezkeen juntadurek sortu dute zalantza. Azkenean, arauaren funtsezkoena onartu bada ere, eskatutako zuzenketa jaso ondoren Miren Azkaratek testua atzera ekarriko du hurrengo bileran aurkezteko eta iraileko bilkuran onartzeko. Posposizioen arazoa argitzeko daudekeen datuak ekarriko dira eta zertu ondoren, iraileko bileran onartzeko moduan egongo da Euskaltzaindia.

Hiztegi Batuaren bigarren itzulia dela eta.

Haritschelhar jaunak ez du argi ikusten “Irizpideetatik” ala *B-bazterzain* hitz-zerrendatik hasi behar den. Zalantza une baten ondoren, zerrendarekin hastea erabaki da, nahiz eta gero irizpideen inguruan mugitu.

Peillenen, Kintanaren eta Satrustegiren oharrak dituzte euskaltzainek mahai gainean.

Miren Azkarateren ustez, hitz zerrendak aztertu baino gehiago zerrendak orekatuak diren ala ez ikustea zen helburua: zer falta den edo zer den sobera. Hori ikustea zen asmoa. Zerrenda begiratu ondoren, zer inpresio aterata den ikusi beharko litzateke, corpusa osatu behar bada osatuz, bigarren itzulia hankamotz gerta ez dadin.

Satrustegi jaunak dio adibide multzo bat ekartzeko eskatzen zela ulertu zuela eta horrela, ikusiko zela hitz horiek balio duten ala ez hiztegian sartzeko.

Kintanaren iritziz, zerrenda berandu etorri da eta, horregatik, bere kabuz hasi zela unibersitatean erabiltzen diren zerrendak aztertzen. Baina ohartu da markatuak zituen hitz gehienak ageri direla jadanik zerrendan. Zernahi gisaz, euskaltzain asko kexu agertu dira aurkeztu den zerrendan informazioa emateko modua oso nahasia delako eta laguntza gutxi eskaintzen duelako.

Eztabaida luzea izan da eta euskaltzain ugari hartu du parte. Bigarren itzuliko irizpideak izan dira batez ere eztabaidagai. Bigarren itzulian erabiliko diren iturriez mintzatu dira denak. Eztabaidarako proposatu zen txostenekoa nolabait osatu egin beharko litzatekeela onartzen dute denek. Horrela, onartu da unibertsitate eta, orohar, irakaskuntza munduan dabilzan hitz nagusiei leku egitea. Lehenbizi halako *thesaurus* batzuk osatu beharko lirateke eta, gero, horietatik zer geuregana daitekeen ikusi. Gauza bera gertatzen da herri-mailako eta etnografia munduko zenbait hitzekin ere.

Pello Salaburuk eztabaida zehaztea eskatzen du: iturrien zerrenda eztabaidatu, hiztegiak barne. Ahozko iturrien zerrenda ere eztabaidatu. Eta azkenik, erabiliko den metodologia aztertu.

Ahozko hitzak jasotzeko premiaz ados agertu dira euskaltzainak. Arazoa da nola jokatu eta nola eman sarrera. Zerrendak nola aurkeztu da kontua. Arazo tekniko bat bada behintzat: iritzi emaleen zerrenda berriro begiratu behar da eta multzoka bilduz hitz zerrendez galde egin.

Aranak aipatu du artxihoan daudela gordeak Azkueren hainbat eta hainbat fitxa eta haiek ere begiratu beharko liratekeela. Bekadun bat jartzea proposatu du hiztegiari buruzko paper horiek ordenatzeko. Ontzat eman da proposamena.

Corpusa osatzen duten hiztegi eta glosarioen zerrenda ere aurkeztu zaie cuskaltzainei eta bigarren itzuliaren iturri gisa baliagarri ikusi dira. Bestalde, *OEH*-ko hiztzentzat ezarri den bost lekukotasun izateko baldintza hori jaitsi behar den ere ezta-baidatu da, baina ez zaio bidezko iritzi.

Oraindik gaia gehiago zehaztu beharra ikusten bada ere, badirudi iturriak aski fin-katutzat eman daitezkeela. Ziurtatu behar da hiztegi batuarekin gaurko euskaldunak dituen premiei modu aski egokian crantzutea. Horretarako, aipatu iturrietan jasoak ez egon arren, esparru jakin batzuetako hitzei leku egin beharko zaie eta baita ahozko iturrietatik datozen zenbaiti ere. Dena dela, bigarren itzuliaren ondoren hirugarrenak ere etorri beharko duenez, hitz jakin batzuei leku egitegatik lana atzeratzea ez da oso egokia.

Aurrekontuak direla eta.

J. J. Zearretak datorren urteko aurrekontuei buruzko zenbait xehetasun eman ditu. Urtero bezala, aurrekontuak aurkeztu behar ditu Euskaltzaindiak. Aurrekontu arrunta egiteak ez du arazorik. Batzorde eta egitasmoen aurrekontuak egiteko, berriz, batzordeburuei eta idazkariei eskatuko zaie bidal dezatela uztaileen 10a baino lehen, hurrengo urterako asmoen berri, gauza bereziak jasoz. XV. biltzarrerako ere aurrekontu berezia egingo da. Hau dela eta, azken zuzendaritza bilkuran batzorde berezia osatzea erabaki dela azaldu du Haritschelhar jaunak: cuskaltzainburuak, idazkariak, diruzainak eta idazkariordeak osatuko duten batzorde hau arduratuko da aurrekontu hori prestatzeaz.

Ordubietan bilera eten egin da bazkaltzeko. Lauetan hasi da arratsaldekoa.

Web-gunearen aurkezpena.

Lehenbizi, Web-gunearen aurkezpena egin du P. Goenagak. Dagoeneko sarean da Euskaltzaindiaren Web-gunca (www.euskaltzaindia.net): Euskaltzainen aurrean halako bisita gidatu labur bat egin da gunc horren ataletara. Horrelakoetan ohi denez, gunc hori sarri-sarri eguneratu beharko dela esan zaie cuskaltzainei eta dituzketen oharrak helarazi ditzatela eskatu.

Jagonet.

Ondoren, Miren Azkaratek hartu du hitza *Jagonet* proiektua dela eta. Aurkezpen labur bat egin du euskaltzainek jadanik ezaguna duten txostenaren edukia gogoratze-ko, zerbitzuaren ezaugarriak azalduz. Jagon saileko kide den J. R. Zubimendi jauna ere batzarrean da.

Urrutia jaunaren oharrak aurkeztu dira ondoren. Hutsuncak ikusten ditu. Kokapen fisikoa Bilbon nahi luke, eta kokapen birtuala, berriz, Euskaltzaindiaren Web-gunean bertan, ez beste nonbait.

Urrutiaren beste kezka kudeaketa nola egingo den finkatzea da: nork, zertarako, nondik, dirua. Askoz gehiago kezkatzen du edukiak. Plantatzen dena txikiegia ote den dago, beste batzuek zerbait hobea eskaini ahalko dutelakoan. Zenbat iraungo dugun ez

daki. Kontsultei erantzuna ematerakoan argi utzi behar da nork zein mailatan erantzuten duen.

Lizundia jaunak ekintza plan bat, "jardupide" bat, eskatu du. Hurrengo bilerarako ekarri beharko litzateke.

Zubimendik erantzun dio esanaz, apustuak, egiten direnean irabazten edo galtzen direla, ez jokatzeko direnean.

Badiola jaunak dio txostenak ez duela argi uzten zer eskaintzen duen. Zer ez duen eskaintzen esaten da. Berak era positiboan nahiago luke.

Ondorio gisa, ñabardurak (nork egingo, non etab.) geroago findu daitezkeela ikusi da. Zehaztasunok zuzendaritzak aztertuko ditu eta Donibaneko bilkuran onartuko dira. Ontzat eman da proiektua, beti ere egindako oharrak kontuan hartuta.

Azken ordukoak.

Elkarri-k aurkeztu duen *30x30 errealitatea, itxaropena* izeneko liburu-proiektuaren berri eman zaie euskaltzainei, bakoitzak zer egin ikus dezan. Haritschelhar jaunaren hitzetan, Euskaltzaindiak, erakunde gisa, ez du horrekin zer ikusirik baina euskaltzain bakoitzak izan dezake.

Nafarroako euskararen inguruko auzia.

Orain arte Nafarroako Hizkuntz Politika zuzendari izan den Pz. de Viñaspre jaunak gutuna idatzi dio Euskaltzaindiari egoeraren berri emanaz. Euskarak Nafarroan har dezakeen norabide berriaz kezka du Euskaltzaindiak eta zuzendaritzak testu bat presatu du Miguel Sanz jaunari zuzendua.

Testu horren idazkerak eztabaida piska bat sortu du. Kintana jaunak, gutunaren hartzaileak konstituzionalista modura agertzen direnez, Espainiako konstituzioak hizkuntzei halako begiramen berezia erakusten baitie, hori aipatu egingo luke.

Satrustegik ez du uste horretara jo behar denik. Erantzun puntual bat da eta denak nahasi beharrik ez dago. Gainera, hau ez da izango azkena.

Estilo zuzenketa batzuekin aho batez onartu da eta dagokion bidetik helaraziko zaio hartzaileari eta zor zaion zabalkundea ere egingo da.

Eta zazpiak bost gutxitan amaitu da bilera.

Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar

Idazkariak

Patxi Goenaga

* * *